# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### SEGURTASUN SAILA

### 5305

*EBAZPENA, 2023ko azaroaren 15ekoa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean noiz argitaratu den Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2023ko azaroaren 14ko Ebazpena, kide batzuk oinarrizko eskalako agente lehen kategoriarekin Ertzaintzako karrerako funtzionario izendatzeari buruzkoa.*

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiak 2022ko azaroaren 30ean eman zuen Ebazpenaren, Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agente lehen kategorian sartzeko hautaketa prozeduraren deialdiari buruzkoaren, hamahirugarren oinarriarekin bat etorriz (abenduaren 20ko EHAA, 241. zk.), eta Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 9. artikuluak ematen dizkidan eskumenak direla bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakinarazten da 2023ko azaroaren 14an argitaratu dela, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2023ko azaroaren 14ko Ebazpena, kide batzuk oinarrizko eskalako agente lehen kategoriarekin Ertzaintzako karrerako funtzionario izendatzeari buruzkoa.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 15a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MIREN GOITIA GABIOLA.